


## IDEIA




Goizero, gehienok kolonia botatzen dugu gorputzean, baina handik 5 - 6 ordutara, koloniaren usaina gutxitzen da, ia usainaren arrastorik geratu gabe. Beraz, gure ideia arazo horri aurre egiteko asmoz pentsatutakoa da.



Proiektu honen bitartez, bezeroak lepoko, paparreko edo haiek nahi duten lekuan eraman dezaketen bitxi bat eskaini nahi dugu, oso praktikoa izango baita. Egunero bezeroaren gustoko perfumeaz bete daiteke eta gainera, 5 orduko bitxiak automatikoki perfume kantitate bat botako du mekanismo baten bitartez. Mekanismo hori bakarrik aktibatuko da *On*-ean jarrita baldin badago, bi modu izango baititu *On* eta *Off*. Era honetan, bitxia ez da egongo egun osoan zehar perfumea isurtzen, bakarrik bezeroek aukeratzen duten momentuan.



Materialak berrerabilitakoak dira: lorearen petaloak plastikozkoak dira eta erdikoa egunkariko paperez eginda dago. Erdian dagoen hutsunetik kolonia isurtzen da.



Hau izango litzateke gure balore-proposamenaren atzeko partea. Erdiko partean kolonia gordetzen da eta gainera, bertan barruan joango da mekanismoa. Hor ikusten duzue, on eta off botoiak daude gure bezeroak nahi dutenean koloniaren mekanismo automatizatuak piztu ala amatatu dezaten.